



TOKIA BERRITZEA BURLATAKO UDAL KIROL ESKOLETAN

Guraso horiek,

2016-2017 denboraldiaren bukaerara iristen ari garen honetan, tokia berritzeko epea ireki da Burlatako Udal Kirol Eskoletarako, 2017-2018 denboraldiari begira.

1. Epea: 2017ko maiatzaren 22tik ekainaren 2ra.

1.1. Epe horretatik kanpo, ez dugu inolako toki-berrikuntzarik onartuko.

1.2. Aipatu epean tokia berritzeko eskaria egiten ez bada, tokiaren erreserba galduko da.

1.3. Tokia berritzeak ez du bermatzen tokia egonen denik, eskari gutxi izatearen ondorioz taldea osatzen ez bada, edota eskari gehiegi izatearen ondorioz, Patronatuak eta/edo Klubak bere gain hartu ez badezakete.

2. Norentzat: Udal Kirol Eskoletan 2016-2017an tokia duten ikasleentzat.

3. Tokia berritzeko prozedura (Ez da aplikagarria Derrigorrezko Kuota Hobaridunentzat):

3.1. Derrigorrezko Kuota Klubaren kontu-zenbakian ordaindu behar da, ikaslearen izen-abizenak kontzeptuan adierazita.

Kontu Zenbakia: Klub bakoitzak eman beharreko informazioa.

3.2. Ordainagiria monitoreari eman behar zaio edo Klubaren posta elektronikoaren bidez. Aipatu epean ordainagiria aurkezten ez bada, tokia galduko da.

3.3.- Harremanetarako datuetan (telefonoa, posta elektronikoa....) inolako aldaketarik bada, Klubari jakinaraziko zaio.

4. Derrigorrezko Kuota:

4.1. Ez da itzuliko derrigorrezko kuota, tartean behar bezala arrazoitutako arrazoi medikorik ez bada.

4.2. Klubak eskatutako beste diru-sarrera oro borondatezkoa izanen da, eta Patronatuak diruz laguntzen ez dituen gastuak ordaintzeko erabiliko da.

	DERRIGORREZKO KUOTA 2017-2018	KUOTA HOBARIDUNA 2017-2018	
	PCE (*) 12.001€-tik gora	PCE (*) 6.001€ eta 12.000€ artean	PCE (*) 6.000€-koak edo hortik beherakoak
Erroldatuak	94	75	56
Ez erroldatuak	136	136	136

* **Per Capita Errenta (EPC):** Familia-unitatearen diru-sarrerak (errenta aitorpenaren 507 + 529 + 8810 + 8808 – 706 laukia) / familia-unitateko kide kopurua.

FAMILIA UNITATEA: Pertsona fisikoen errentaren gaineko aitorpena arautzeko ekainaren 2ko 4/2008 Foru Dekretu Legegilearen 71. artikuluan aurreikusitakoa.

5. Derrigorrezko Kuota Hobaridunak (Burlatan erroldaturiko jendearentzat baizik ez):

5.1 Prozedura: Ezarritako per capita errentaren (PCE) parametroetan sarturik daudela uste dutenek tokiak berritzeko epeen barruan aurkeztu beharko dute dokumentazioa kuota hobariduna eskatzeko (**ekainaren 2ra arte**), Udal Kirol Patronatuaren bulegoetan.

Gestio eta ordainketa guztiak Patronatuaren bidez egingen dira. Patronatuak kasuan kasuko Klubari emanen dio tokia berritzeko kudeaketaren berri.



Ayuntamiento de Burlada

Burlatako Udala

Patronato Municipal de Deportes

Kirol Udala Patronatua

C/ Soto, s/n
Tfno. 948 13 02 60
Fax. 948 13 37 22
deportes@burlada.es
31600 Burlada / *Burlata*
Navarra / *Nafarroa*

Eskatzaileei posta elektronikoaren bidez emanen zaie epeen, kontu-zenbakiaren eta ordaindu beharreko diruaren berri.

5.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Burlatako Udal Kirol Patronatuaren eskabide ofiziala.
- Azken ekitaldiko errenta aitortenaren fotokopia, Ogasun Departamentuak jaulkia. Errenta Aitorpenik egin beharrik ez bada, langabezia-prestazioen eta -laguntzen frogagiria aurkeztuko da, edo azken pentsioaren frogagiria (pentsioaren balio handitzea), edo azken nomina, etab.

Tokia berritzeko prozesuaz inolako zalantzarik baduzue, jo ezazue:

- Kirol Kluba
- Burlatako Kirol Patronatua: telefono zk.: 948.130.260, Posta elektronikoa: deportes@burlada.es